


## Gipuzkoako gazteak dira lanaren aldetik aurreikuspen onenak dituztenak

Gazteen Euskal Behatokiak [Aurrera Begira](#) izeneko ikerketaren bosgarren edizioa, 2017 urteari dagokiona, aurkeztu du.

Ikerketa honen emaitzen arabera, ikus dezakegu lanari eta emantzipazioari lotutako aurreikuspenak hobeak direla Gipuzkoan bizi diren gazteen artean, Araban edo Bizkaian bizi direnen artean baino. Lanean dabiltzan gazte gipuzkoarren artean lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko beldurra txikiagoa da Arabako edo Bizkaiko langile gazteen artean baino. Langabezian daudenei erreparatuz gero, ikus dezakegu lana aurkitzeko itxaropena handiagoa dela Gipuzkoako langabeen artean, Arabako edo Bizkaiko langabeen artean baino. Gipuzkoako ikasleek Arabakoek edo Bizkaikoek baino neurri handiagoan uste dute ikasketak amaitzean beren ikasketekin lotutako lana aurkituko dutela. Eta, azkenik, beren kontura bizi nahi duten Gipuzkoako gazteek Arabakoek edo Bizkaikoek baino aukera gehiago hautematen dituzte urtebeteko epean horrela bizi ahal izateko.

Gainera Gipuzkoako gazteek Arabakoek edo Bizkaikoek baino konfiantza handiagoa dute gazteen gaitasunetan.

AURRERA BEGIRA 2017: GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO ADIERAZLEAK 				
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Egungo egoeraren balorazio indizea (0-100)	69	68	70	69
Norberaren poztasun indizea (0-100)	78	79	80	79
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (%)	38	36	26	33
Lana aurkitzea aurreikustea (%)	67	76	87	78
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (%)	73	71	80	74
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (%)	11	11	10	11
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (%)	48	49	39	46
Gazteen gaitasuneko konfiantza indizea (0-100)	69	67	76	70
Etorkizunarekiko konfiantza indizea (0-100)	75	75	74	75

*Aurrera begira* ikerketa 2013an sortu zuen Gazteen Euskal Behatokiak eta ordutik hona urtero burutu izan du. Ikerketa honen helburua bikoitza da: alde batetik, Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina jakitea eta, bestetik, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak ezagutzea.

Horretarako Euskadiko gazteriaren lagin adierazgarri bati inkesta bat egiten zaio telefonoz. Lagina 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gaztek osatzen dute. Gazte horietako 406 Araban bizi dira, 602 Bizkaian eta 504 Gipuzkoan.

[Txosten osoa](#) Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean kontsulta daiteke eta bertan urtez urteko bilakaera eta sexuaren eta adin-taldearen arabeko aldeak ikusi.